

Ikasturtea: 2022/23

## 143204 - Europako literaturak

### Irakaskuntza planaren informazioa

**Titulazioa:** 14302 - Hizkuntza Modernoetako eta Kudeaketako Gradua

**Ikasturtea:** 2022/23

**Irakasgaiaren kodea eta izena:** 143204 - Europako literaturak

**Noiz egitekoa:** Lehenengo seihilekoa

**Ikasturtea:** 1

**Mota:** Oinarrizko prestakuntza

**ECTS kredituak:** 6.0

### Justifikazioa

Ikasgaiak literaturaren historiari buruzko oinarrizko ezagutza zenbait eskaintzen du, zeintzuek aukera emango dioten ikasleari Europa moderno eta garaikideko produkzio diskurtsibo zabalean murgiltzeko. Are gehiago, ikaslearen formazioari ezinbesteko ekarpena egiten dio graduari atxikitako gaitasun kognitibo eta linguistikoak garatzen dituen heinean.

### Aurrebaldintzak

Euskarazko gutxieneko C1 maila eta ingeles akademiko idatziaren ulermena

### Irakasgaiako kompetentziak

**Gaitasun orokorra 1:** Gauzak auzitan jartzea eta arreta erakustea ideia, ekintza eta epaiak ezartzen diren oinarriekiko, norberarenak nahiz inorenak direla.

Gaitasun hori pentsamendu kritikoari dagokio eta bere bigarren menderatze mailan garatzen da: norberaren eta inoren epaien koherentzia aztertzea eta berorien eragin pertsonal eta sozialak balioestea.

Ikasketaren emaitza:

- Norberaren epai eta balioespenak formulatzen ditu
- Besteen epaiak gogoan hartzen ditu
- Barne irizpideen arabera epaiak adierazten ditu (barne funtsa, koherentzia, kongruentzia, fidagarritasuna, etab.)
- Erabaki eta proposamenen eragin praktikoak balioesten ditu
- Arazo edo proposamen baten aurrean giza eskubideei dagozkien eraginak identifikatzen ditu (duintasuna, autoestimua, etab.)

**Berriazko gaitasuna 2.** Euskararen erabilera bikaina erakustea, gaitasuna izanik komunikatzeko dagozkien soslai profesionaletan onartuak diren terminologia eta tekninak erabiliz.

Gaitasun hori euskarazko komunikazioaren dimentsioari dagokio. Ikasgai honetan 1 eta 2 osagaiak garatuko dira:

1. Ahoz komunikatzea ideia eta argudioak argi adieraziz, pentsamendua antolatuz eta terminologia egokiaz eta

euskarazko hiztegi aberatsaz baliatuz.

2. Erregistro eta diskurtso mota anitzak zuzen erabiliz idaztea, bai eta hausnarketa estetiko eta literarioari eskainitako idazlanak sortzea.

Ikasketaren emaitza:

- Tipologia anitzetako eta egoera komunikatibo berezietara egokituriko diskurtso formalak lantzen ditu, ahoz eta idatziz argi ekoizkiak eta ondo egituratuak direnak
- Arazo ideologiko eta kulturalak aztertzen ditu Europako literaturaren lan eredugarrieneratariko batzuetan eta haien prozesu kultural, filosofiko eta estetikoak agerian uzten ditu
- Diskurtso literarioaren osagai konplexuetarikoren bat identifikatzen du aztergai duen lanean, osagai horiek ondorengoak izan daitezkeela: mitoak, sinboloak, gaiak, irudiak edota kontzeptuak, besteak beste. Eta osagai horiek era argi eta komunikagarrian azaltzen ditu
- Balorazio kritiko-literariozko saiakera laburrak lantzen ditu, bertan testuaren arazoak interpretatzeko proposamenak eskaintzen dituela diskurtso kritiko berariazko edo pertsonala sortzen duen bitartean

**Berariazko gaitasuna 5.** Norberaren lan-espezializazio eremuan beharrezkoak diren tresna metodologikoak maneiatzea iturriak, datuak eta informazioa bilatzeko eta kritikoki interpretatzeko.

Gaitasun hori giza zientzien eta hizkuntzen alorrean erabili ohi diren tresna, langai eta tekniken eremuari dagokio. Materia honetan 1 osagaia garatuko da: informazio bilketa langaiak erabiltzea, hala nola katalogo bibliografikoak, artxibo inbentarioak eta erreferentzia elektronikoak.

Ikasketaren emaitzak:

- Beharrezko duen informazioa aurkitzeko gai da baliabide eta euskarri tradizionaletan nahiz informatizatueta
- Hizkuntzaren menderakuntza erakusten duten kontsulta-baliabide anitzak erabiltzen ditu (hizkuntz hiztegiak, zalantza hiztegiak, gramatika eta arautegiak, besteak beste) euskarri tradizionaletan edo informatikoan.

**Berariazko kompetentzia 6.** Giza zientzien funtsa osatzen duten behin-behineko oinarriak ulertzea eta norbereganatzea, bai eta hizkuntzekin duten harreman berariazkoa.

Gaitasun hori giza zientzien alorrari dagokio. Materia honetan lehen osagaia garatuko da: Hizkuntza eta giza zientzien alorreko adar anitzetan eraginkorrenak diren kontzeptu, kategoria, teoria eta gaiak egokiro identifikatzea eta erabiltzea.

Ikasketaren emaitza:

- Saiakerak lantzen dituenen saiakera literarioak berezko dituen azterketa kategoriak antzeman eta erabiltzen ditu.

## **Edukiak**

Ikasgai honetako edukiak atal nagusi bitan banatzen dira. Lehen atalean lehen unitatea soilik txertatzen da, kanon literarioaren auziari dagokiona. Bigarren atala bost unitatez osatzen da, Europako literatura modernoaren aldiei eskainiak. Unitate bakoitza aldi horri dagozkion mugimendu, genero, idazle eta lan aipagarrienez osatzen da. Hona hemen sei unitateen ildo tematikoak:

1 atala:

1 unitatea: Mendebaldeko kanona

2 atala:

2 unitatea: Erromantizismoaren aldiko literatura.

3 unitatea: Errealismoaren eta Naturalismoaren aldiko literatura

4 unitatea: Modernismoaren aldiko literatura

5 unitatea: Konpromiso politikoaren aldiko literatura

**Irakasteko eta ikasteko estrategia, ebaluazio sistema eta dokumentazioa**

<p><b>: Koldobika Josu Bijuesca Basterrechea</b></p>	<p><b>: 33 - Euskara</b></p>
<p><b>: FACULTAD DE CIENCIAS SOCIALES Y HUMANAS (BILBAO)</b></p>	
<p><b>Irakasteko eta ikasteko estrategia</b></p> <p>Ikaslearen lanari atxikitako 150 orduetatik 56 inguru ikasgela jardueretarako izango dira eta 94 inguru ikasgelatik kanpoko jardueretarako.</p> <p>Lehen multzoko ordu horietan ondorengo ikasketa estrategiak landuko dira: irakaslearen azalpenak, ikasleen eduki-aurkezpenak, ikasleen emaitza-aurkezpenak. Bigarren multzoko ordu horietan ondorengo ikasketa estrategiak landuko dira: irakurgai teorikoen eta literarioen irakurketa, saiakeren idazketa, taldeka landu beharreko proiektuaren lanketa, eduki-aurkezpenen prestaketa, proiektuaren emaitzen aurkezpena, azterketen prestaketa.</p>	
<p><b>Ebaluazio sistema</b></p>	
<p>Ikasgai honetako ebaluazio sistemak jarraikako ebaluazioa eta azken azterketa bereganatzen ditu. Lehen osagaiari azken kalifikazioaren % 60 inguru dagokio eta bigarrenari beste % 40a.</p> <p>Kalifikazio sistemak ondorengo proportzioan banatuko du gaitasunen ebaluazioa: gaitasun orokorreki kalifikazio osoaren % 30 inguru dagokie; berariazko gaitasunei azken kalifikazio osoaren % 70 inguru dagokie.</p> <p>Ebaluazio sistema bera erabiliko da deialdi guztietan, ohikoan eta ez-ohikoan.</p>	
<p><b>Dokumentazioa</b></p>	
<p>Oinarrizko bibliografia eta internet baliabideak:</p> <p>Bloom, Harold (2005): <i>El canon occidental</i>. Anagrama, Barcelona.</p> <p>Esteban, Angel y Chaichio, Araceli (2003): <i>Lecciones de literatura universal contemporánea</i>. Comares, Granada.</p> <p>Caminero, Juventino (1992): <i>Literatura europea del siglo XX: corrientes, teoría, sistema y glosa</i>. Universidad de Deusto, Bilbao.</p> <p>Iañez, Eduardo (1990-1995): <i>Historia de la literatura universal</i>. Bosch, Barcelona, vols. 5-9.</p> <p>Llovet, Jordi, ed. (1995): <i>Lecciones de literatura universal. Siglos XII al XX</i>. Cátedra, Madrid.</p> <p>Penguin / Alianza (1982): <i>Diccionario de literatura. 2. Literaturas europeas</i>. Alianza, Madrid.</p> <p>Pozuelo, José María y Aradra, Rosa (2000): <i>Teoría del canon y literatura española</i>. Cátedra, Madrid.</p> <p>Sullá, Enric (1998): <i>El canon literario</i>. Arco, Madrid.</p> <p>Travers, Martin (1998): <i>An Introduction to Modern European Literature. From Romanticism to Postmodernism</i>. Macmillan Press, London.</p> <p>Travers, Martin, ed. (2001): <i>European Literature from Romanticism to Postmodernism. A reader in Aesthetic Practice</i>. Continuum, London and New York.</p> <p>Wischer, Erika, ed. (1992 y 1994): <i>Historia de la literatura: Literatura y sociedad en el mundo occidental</i>. Vol. IV <i>Ilustración y Romanticismo: 1700-1830</i>. Vol. V: <i>La edad burguesa: 1830-1914</i>. Akal, Madrid.</p> <p>Euskarari ekarriak (armiarma): <a href="http://ekarriak.armiarma.eus/">http://ekarriak.armiarma.eus/</a></p> <p>Literatur Emailuak (armiarma): <a href="http://www.armiarma.eus/emailuok/">http://www.armiarma.eus/emailuok/</a></p> <p><a href="http://www.litencyc.com/">http://www.litencyc.com/</a></p>	

[http://www.discoverfrance.net/France/Literature/DF\\_literature.shtml#Introduction](http://www.discoverfrance.net/France/Literature/DF_literature.shtml#Introduction)

<http://www.bartleby.com/65/ge/Germanli.html>

[http://directory.google.com/Top/Arts/Literature/World\\_Literature/](http://directory.google.com/Top/Arts/Literature/World_Literature/)

<http://www.lib.virginia.edu/wess/etexts.html>